

## **KALITATEARI, LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI ETA INGURUMENARI BURUZKO POLITIKA ETA HELBURUAK**

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa Jose Maria Arizmendiarieta S. Coop. (MGEP) pertsonengan oinarritutako proiektu bat da, MU eta MONDRAGON barruan dago, eta hau da bere izateko arrazoia:

gizartea eraldatzea, pertsonen prestakuntza integrala landuz eta zientziaren nahiz teknologiaren arloan ezagutza sortuz, transferituz eta gizarteratuz.

Horretarako, zera sustatuko du:

- Balio kooperatiboetan oinarritutako prestakuntza eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza, garapen sozialerako elementu giltzarriak direlakoan.
- Ikerketa, transferentzia, berrikuntza eta ekintzailtza, aurrerabide jasangarriko faktore moduan.

Antolaketa eredu gure esentzia kooperatiboan inspiratuta dago eta, ondorioz, balio hauek dituen erakundea garatzen dugu: lankidetzak, bokazioa, proaktibitatea, ingurunearekiko erantzukizuna eta konfiantza.

MGEPeko kide guztien parte hartzea eta inplikazioa bultzatzen ditugu, kalitate, laneko segurtasun eta osasun eta ingurumeneko helburuak betetzeko. Horretarako, prozesuetan, arriskuaren eta aukeren analisian eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa sistema bat dugu, erakundeak baliabideak optimizatu ahal izateko eta langileen, bezeroen, administrazioen eta gizartearen beharrak eta nahiak asetzeko.

Halaber, gure iritziz, funtsezkoa da laneko segurtasun eta osasuna kudeatzea, kalteak prebenitzeko eta osasuna sustatzeko modurik onena delako. Konpromisoa hartzen dugu arriskuak identifikatu, ebaluatu eta neurriak planteatzeko, lesioak, kalteak, gertakariak, lan istripuak eta gaixotasun profesionalak prebenitzeko helburuarekin, eta baita ere MGEPen osasunari lotutako arloak bultzatzeko.

Etorkizuneko Gizartearen alde ekarpena egin eta lan egin nahi dugu. Horregatik, MGEPen, ingurumena babesteko konpromiso irmoa dugu, kutsaduraren prebentzioa eta baliabide naturalen erabilera jasangarria barne, eta horregatik sustatzen dugu ekimenak eta proiektuak garatzea, ekonomia zirkularra bultzatzen eta klima aldaketa arintzen laguntzeko.

Kalitatearen kudeaketan, laneko segurtasun eta osasunean zein ingurumeneko alderdietan, indarrean dagoen legedia betetzea sustatzen dugu, baita ezarritako arauak eta betebeharrak ere.

Gainera, politika honek erreferentziazko esparru bat ezarri nahi du kalitate, laneko segurtasun eta osasun eta ingurumeneko helburuak ezartzeko.

Halaber, konpromisoa hartzen dugu GIHak bete daitezela laguntzeko.

Gure azken helburua da langileen, bezeroen, administrazioaren eta gizartearen gogobetetzea lortzea, gure produktu eta zerbitzuak berrituz eta balioa erantsiz.

Horregatik guztiagatik, koordinazio orokorreko taldeak konpromisoa hartzen du, gure erakundea kudeatzeko, politika hau beste erakunde eta eragile batzuei jakinarazi, gidatu eta horiekin lankidetzan bultzatzeko, bere esku dituen bitarteko guztiak eskainiz, urteko gestio planean kalitateari, laneko segurtasun eta osasunari eta ingurumen kudeaketari buruz planteatutako helburuak eta ekintzak betetzeko.

Koordinazio Orokorreko Taldea, eta bere izenean: Carlos Garcia Crespo.

Kontseilu Errektorearen 2020ko apirilaren 29ko bileran onartua.

30627545D  
CARLOS  
GARCIA (R:  
F20045241)

Firmado digitalmente  
por 30627545D  
CARLOS GARCIA (R:  
F20045241)  
Fecha: 2020.05.12  
10:10:18 +02'00'